

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 7/2019 Foru Agindua, urtarrilaren 15ekoa, Antoñanako hirigune historikoaren Birgaitze Integraturako Plan Berezia aldatzeko Ingurumen Txosten Estrategikoa ematen duena

“Antoñanako hirigune historikoaren Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren barruko aldaketa” izapidetzeko, ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura sinplifikatua jarraitu behar da. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, arautzen du prozedura hori.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak plan bereziaren barruko aldaketa horren inguruko ingurumen agiri estrategikoa jaso du, Kanpezuko Udalak igorria eta abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, araututako gutxieneko edukari jarraitzen diona, bai eta hirigintza agiria ere.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako dokumentazio hori jaso ondoren, kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunei dagokienez, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritako eran.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2019ko urtarrilaren 10ean eman zuen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (18/72 espedientea).

1. Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren barruko aldatetaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren barruko aldatetaren ezaugarrien laburpena:

Hauek dira Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren barruko aldatetaren helburuak:

- Eliza plazako 2an, Santikurutze Kanpezuko 2. poligonoko 420 zenbakidun hiri lurzatiari dagokionean, dagoen eraikinaren baldintza bereziak aldatzea.
- Eraikinak okupatutako eremuan etxebizitza bat garatu eta egitea baimentzea, aldatu nahi den lurzatiaren ondoko ingurunean hobetuz.
- Eliza plazaren ingurune osoa berrantolatzea, iristean ikusten den herriaren irudia hobetuz, horretarako lurzatiaren zati bat lagaz, espazio libre publiko bihurtuz; antolamendua egokituz eta hiri irudi finkatuagoa erraztuz.



Ezkerreko planoan egungo egoera ikusten da eta eskuinekoan proiektatzen den egoera eraberritua; pabilioirako eraikin txikia izateari utzi eta bizitegi eraikin bihurtuko litzateke, eta 25 metro koadro inguruko azalera bat Eliza plazako espazio publikorako lagako litzateke.

1.2. Ebaluatu behar den eremu geografikoa:

Aldaketaren eremu geografikoa Antoñanako Erdi Aroko hirigunearen Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren barruan dago. Ingurunerik hurbilenean landa izaerako bizitegi eraikinak daude, eta Antoñanako gunea nagusiki definitu eta haren bereizgarri den elementua harresia da.

Plan bereziaren barruko aldaketaren eremu zehatzak Kanpezuko 2. poligonoko 420 zenbakidun hiri lurzatiari eragiten dio zeinak, katastroaren arabera, 231,38 metro koadro okupatzen baitu. Lurzati horrek daukan eraikina kanpoko etxe-uharte gisa sailkatutako eremu batean kokatzen da, harresiarekiko posizio horretan dagoelako.

1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denez, bi aukera kontuan hartu eta aztertu dira:

– “0” aukera edo ez esku hartzekoa (hautatu ez den aukera): Ez litzateke jardungo eta, beraz, egungo egoerari eutsiko litzaioke, 420 zenbakidun lurzatiako eraikina pixkanaka narriatzera kondentatuz. Sustatzaileak dioenez, “narriadura hori eraikin txikia izateagatik gertatzen da, dagoen eraikinarentzat desegoki gisa katalogatu dena”.

– “1” aukera (hautatua): Aukera hori halako moldez definitzen da, non 420 zenbakidun hiri lurzatiako eraikin osoan etxebizitza bat garatzea ahalbidetzen duen, higiezinaren beheko solairuaren zati bat espazio libre bihurtzeko lagata, “herrira iristean dagoen irudia hobetuz eta elizaren ingurune osoa berrantolatuz”; Ingurumen Agiri Estrategikoan esaten denez, eta txosten honen 2.1 puntuan grafikoki jaso denez.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2018ko uztailaren 5ean, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak abian jarri zuen eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko fasea, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkarte	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Kanpezuko Udala	
Antoñanako Administrazio Batzarra	
Kanpezu - Arabako Mendialdeko Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoe-
ten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 18/72 espedientean eta
www.araba.eus webgunean):

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak dioenez, ez du eragin arkeolo-
gikorik ikusten proposatutako aldaketan, erreferentziako eraikina hirigune historikoko eremu
arkeologikotik kanpo eta elizatik Erdi Aroko hilerriari ez eragiteko bezain urrun baitago.

- URA- Uraren Euskal Agentziak lehen txosten bat eman zuen uztailaren 12an. Bertan dioe-
nez, eskaera Uraren Euskal Agentzian sartu da eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri
zaio dagokion txostena eman dezan.

Bigarren txosten bat eman zuen URAk irailaren 17an, zenbait alderdiri buruzko ohar batzuk
eginez. Lehenik, jabari publiko hidraulikoari eta haren babes-eremuari buruz, hau esanez: “po-
lizia eremuan (100 metro), non baitago aldatu nahi den eraikina, mugen pean egongo dira,
besteak beste, uholde erregimeneko korrontearantzat oztopo den edo ur masaren, ur ekosis-
temaren eta, oro har, jabari publiko hidraulikoaren egoera degradatu edo narriatzea eragin de-
zakeen erabilera edo jarduera oro”. Uholde arriskuari buruz, hauxe dio: “hirigintza izapidetzearen
esparruan, beharrezkoa bada, indarreko araudian proposatutako jardueren bateragarritasunari
buruzko justifikazio hidrauliko bat aurkeztu beharko da”. Hornidurari dagokionez, egungo eta

etorkizuneko sareen eskema bat aurkeztu beharko dela dio. Azkenik, hau dio saneamenduari buruz: “proposatutako etxebizitza 2 zenbakidun zaborgunea deritzonean, administrazio batzorde horren alde baimendutakoan, isurtzen duen arazketa sistemara konektatu beharko da, jabari publiko hidraulikora hondakin urik isuri gabe, eta egungo eta etorkizuneko sareen eskemak aurkeztu beharko dira”.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak emandako txostenean hau ondorioztatzen du: “Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren eremua Antoñanako hirigunera mugatzen da, plangintzak hiri lurzoru gisa kalifikatzen duenera eta beraz, ez dio landa lurzoruari eragiten eta, hortaz, ez dauka eraginik nekazaritzan eta abeltzaintzan. Zuzendaritzaren ustez, ez du eraginik Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erregistroan inskribatutako landa bideetan ere.

- Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritzak, Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren aldaketa proposamena laburbildu ondoren, ohar hauek egin ditu:

1. “Ebaluatutako Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren aldaketak eragindako eremuaren barruan ez dago kultura ondasun izendatutako, inbentariatutako ez kalifikatutako interes arkitoniko edo arkeologikoko elementurik ez Balizko Arkeologia Gunerik.

2. Espazio publikoaren erregularizazioa ondo baloratzen da Antoñanako hirigune historikorako sarbidearen espazioa hobetzearen ikuspuntutik.

3. Eraikitze bolumetria berriak hegoaldeko muturrean errematatzen du Antoñanako mendebaldeko hiri fatxada. Erremate hori egokia izateko, eraikin berriaren erlaitz kotak Eliza plazako 4 zenbakiko ondoko higiezinaren erlaitzen azpitik geratu behar luke. Ezarritako plazako sestratiko 6,5 metroko hegalerako garaiera berriarekin baldintza hori beteko litzateke”.

Horregatik, “kultura ondarearen gaineko inpakturik hautematen ez dela” ondorioztatzen da.

- Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren ustez, Antoñanako Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren barruko aldaketan, ingurumen ebaluazioan, inpaktuari begira, kultura ondarearen gaineko eraginaren analisiak behar du funtsezko alderdia. Ingurumen agirian ez da alderdi hori ingurumenaren beste osagai batzuk, hala nola landaretza, fauna, edafologia edo paisaia, bezain xehe aztertu.

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren arabera, “organo honek dakienez, kokaleku horiek ez dute jasan lurzoru kutsa dezakeen jarduerarik eta, beraz, ez daude lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten edo jasan dituzten lurzoruaren inbentarioan.” Azkenik, hau jasotzen da: “kutsadura zantzuak hautemanez gero, lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko 4/2015 Legearen 22. artikulua betez, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio”.

3. Plan bereziaren ingurumen inpaktuen deskripzioa

Ingurumen Agiri Estrategikoaren 6. puntuan (“Aurreikus daitezkeen ingurumen ondorioak”) jasotzen denez, kalkulatu da Antoñanako Ebaluatutako Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren barruko aldaketak ez dakarrela ingurumen ondorio esanguratsurik idatzita dagoen bezala, baina egia da aldaketa horrek bestelako ingurumen ondorioak eragingo lituzkeela onartutakoan, eraikitze obrak egikaritzen direnean. Puntu honetan aztertu dira ondorio horiek.

Aldaketa honekin etxebizitza bihurtu ahalko den biltegiaren teilatuko estalkia amiantozkoa da. Ingurumen agirian zehazten denez, lehen eraisketa fasean amiantozko estalkia enpresa ziurtatu batek kenduko du. Estalkia, eremua eraldatu eta etxebizitza bat eraikitze, berme guztiakin kendu beharko da, indarreko legedia betez. Nolanahi ere, planaren barruko aldaketak eta lanen ondorengo garapenak ingurumen ondorio ona ekarri ahalko dute.

Halaber, egungo eraikinak okupatutako eremuan etxebizitza bat garatu eta egiteak aldaketak ekarriko lituzke uraren hornidura eta saneamenduaren eskarian eta, beraz, uraren arloan eskudun den organoak horri buruz ezartzen duena bete beharko da, txosten honen aurreko

puntuetan aurreratu denez, URA – Uraren Euskal Agentziak kontsulta fasearen esparruan emandako alegazio txostenari buruzko puntuan.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritzak kontsulta fasean emandako alegazio txostenean adierazitako ildo berean, kalkulatu da espazio publikoaren erregularizazioak inpaktu positiboa izango duela, Eliza plazaren inguruan espazio publikoaren azalera zabaltzen baita. Halaber, inpaktu positibotzat jotzen da Antoñanako hirigune historikoaren hego-mendebaldeko fatxadaren estetika arkitektonikorako proposatutako irtenbidea, egungo eraikuntza irtegunea kendu bailitzateke ondoko inguruneke higiezin multzoaren hiri trazadura eta ikuspegia homogeneizatzeko.

Azkenik, planaren barruko aldaketa hau onartzearen ondorioz gauza litezkeen eraisketa eta eraikuntza obrek inpaktu batzuk ekarriko lituzkete, ingurumen ondorioak minimizatzeko ingurumenean integratzeko neurri egokiak hartzea eskatuko luketenak.

4. Ondorioa. Ingurumen baldintzak

Baldintza hauek ezartzen dira “Antoñanako hirigune historikoaren Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren barruko aldaketa” hirigintza agirian sartzeko:

– Aldatuko den eremuan dagoen biltegia etxebizitza bihurtzearekin batera, egungo amiantozko estalkia kendu beharko da derrigor. Enpresa ziurtatu batek kenduko du, hondakin arriskutsuei begira eskudun den agintaritzak onartutako berariazko plan bat betez.

– Plan Bereziaren barruko aldaketa garatzeko jarduerak eragin litzaketen eraisketa eta eraikuntza obrak gauzatzeko aldiari ontzi estankoak, gordailu iragazgaitzak edo bestelako sistemak jarri beharko dira lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitratzeko, eta debekatuta dago erabilitakoak isurtzea. Kudeatzaile baimendu bati emango zaizkio halakoak. Debeku hori sor daitezkeen beste hauetara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakindegia edo zabortege baimenduetara eraman beharko dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntzako eta eraiste lanetako hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraispenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

XEDATU DUT

Lehenengoa. “Antoñanako hirigune historikoaren Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren barruko aldaketa”ren Ingurumen Txosten Estrategikoa egitea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumenaren txosten estrategikoa hau ALHAOn argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 15a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria
AMAIA BARREDO MARTÍN